



III. ERANSKINA.

Jakinarazpena, kanpoko finantziazioa duen lan kontratu mugagabearen amaierari buruzkoa (Zientziaren Legeko 23. BIS artikulua)

Zientziaren Legeko 23.BIS artikulua araberako jarduerak zientifiko-teknikoetarako egin zen lan kontratu mugagabea desagitea eskatzen da. Hauek dira aipatu den kontratuari dagozkion datuak:

| | |
|-------------------------------------|--|
| Ikertzailearen izen-abizenak | |
| Ikerketa lerroa | |
| Indarrean dagoen proiektuaren izena | |
| Indarrean dagoen organikoa | |

Ikertzailearen kontratua desagiteko arrazoia:

- Aurrekontuan krediturik ez egotea.
- Lerroaren edo proiektuaren amaiera.
- Kontratututako pertsonak egiten dituen jarduerak edo lanen amaiera.
- Beste arrazoi objektibo bat (adierazi zein).

Kontratua desagiteko arrazoiak justifikatzen dituen txostena
(Nahitaez bete beharreko eremua)



| | |
|--|----------------------------|
| | Izen-abizenak eta sinadura |
| Ikerketa lerroko ikertzaile nagusia | |
| Kontratua finantzatzen duen ikerketa proiektuko ikertzaile nagusia | |

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ontzat eman du eskari hau.

(1.oharra)

| | |
|--|------------------------------|
| BALIDATUA (Adierazi BAI/EZ) | |
| IAEan BERRIKUSIA (berrikusi duenaren izen-abizenak eta sinadura) | BERRIKUSPENAREN DATA: |
| IAEren OHARRAK : | |
| | |

| | |
|-----------------------------------|--|
| Ikerketaren arloko errektoreordea | |
|-----------------------------------|--|



1. oharra: IAEk aztertuko du egokiak diren ikertzaile nagusiak kontratua amaitzeko emandako arrazoiak eta justifikazioak. Zehazki, honako xehetasun hauek aztertuko ditu

1. **Arrazoiak: aurrekontuan krediturik ez egotea.** Errektoreordetzak begiratuko du ea kontratua finantzatzen zuten organikoetan I. kapituluak ez dagoen nahiko dirurik kontratua luzatzeko. Krediturik balego, kontratuko ikertzaile nagusiak justifikatu beharko du zergatik ez den erabiliko diru hori kontratua luzatzeko, eta zertarako behar den.

Gerta liteke kontratua amaitzeko arrazoi honetaz gain, "Kontratututako pertsonak egiten dituen jarduera edo lanen amaiera" ere argudiatzea. Kasu horretan, aurreko paragrafoan aipatutako egiaztapenez gain, bigarren paragrafoko hirugarren atalari dagokion egiaztapena ere egin beharko da.

2. **Arrazoiak: lerroaren edo proiektuaren amaiera.** Begiratuko da ea pertsona gehiago dauden kontratatuta amaituko den kontratuaren ikerketa lerroari loturik. Halakorik balego, ikertzaile nagusiak azaldu beharko du zelan izan litekeen ikerketa lerroa amaitu egin dela esatea eta aldi berean lerro horri lotutako beste kontratu batzuek indarrean jarraitzea.

3. **Arrazoiak: kontratatutako pertsonak egiten dituen jarduera edo lanen amaiera.** Begiratuko da ea ikertzaile nagusiak behar bezala justifikatu duen amaituta daudela kontratuaren arabera egin behar ziren lanak. Kontratua sinatzen denetik lan horiek zerikusia izan behar dutenez kontratua lotuta dagoen ikerketa lerroarekin, hari lotutako beste kontratu batzuek indarrean jarraitzen badute, azaldu beharko da nola izan litekeen kontratu hori amaitzea eta aldi berean lerroari lotutako besteek indarrean jarraitzea bakoitzari dagozkion egitekoekin.

Gerta liteke kontratua amaitzeko arrazoi honetaz gain, "Aurrekontuan krediturik ez egotea" ere argudiatzea. Kasu horretan, kontratua amaitzearen justifikazioan arrazoi biak azaldu eta erlazionatu beharko dira.

Ikertzaile nagusiak bi arrazoiaren arteko erlazioa azaldu ezin badu, arrazoi bietako bat hautatzeko eskatuko zaio.

4. **Beste arrazoi objektibo bat (adierazi zein):** arrazoi hau izan beharko da aurreko multzoetan inolaz ere sartzeko ez den beste arrazoi bat. Interesdunak kontratuari uko egin izana alde batera utzita, gainerako kasuetan ikertzaile nagusiaren justifikazioa datu objektiboetan oinarritu beharko da. Idatziz eman beharko ditu datuok, eta, beharrezkoa izanez gero, kasuan kasuko dokumentuez lagunduta.